



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko martxoaren 11

25. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia ([2. or.](#)).
- Foru Legea, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia ([5. or.](#)).
- Foru Lege proposamena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen lanbide karreraren sistema arautzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua ([7. or.](#)).
- Foru Lege proposamena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen lanbide karreraren sistema arautzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea ([7. or.](#)).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko ikur eta sinboloei buruzko informazioa emateko eta haiek indartzeko, ezagutzera emateko eta erabiltzeko plan bat egin dezan. Foru Araubide Batzordeak onetsia ([8. or.](#)).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko otsailaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2003ko martxoaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Parlamentuko Osoko Bilkurak Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea onetsi zuen 2002ko ekainaren 27an. Foru legeak hainbat neurri jasotzen ditu gizartearen hainbat alorretan –hezkuntza, osasuna, informazioa, lana eta abar– indarkeria sexistari aurrea hartzeko eta haren biktimei babesa emateko.

Halere, aipatu foru legean ezarritako neurriak ez dira aski mota horretako indarkeriarekin lotutako alderdi guztiak arautzeko. Hori dela-eta, onesten da foru lege proposamen hau.

Artikulu bakarra.

Ondotik adierazten diren aldaketak –ondotik ematen den testuarekin hain zuzen ere– eginen dira Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legeko artikulua, idatz-zati eta xedapenetan.

Bat. 1. artikuluari ondoko testua eransten zaio:

“Foru lege honen helburua da ere erasogileak berrezitzeko eta bergizarteratzeko mekanismoak ezartzea.”

Bi. 3. artikuluko 3. idatz-zatian ondokoa eranstena da:

“Aipatu planek izanzen dituzte, halaber, erasogileak berregokitzeko aurrera eramandako jarduketak.”

Hiru. 5. artikuluko 3. idatz-zatian lerroalde berri bat eranstena da. Hona testua:

“Material hauek sistematikoki berrikusiak izanzen dira hezkuntza maila guztietan, helduen hezkuntza barne. Horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Departamentua eta Nafarroako Emakumearen Institutua inplikaturik dira, eta administrazio publikoak behar diren baliabideak emanen ditu.”

Lau. 5. artikuluari bi idatz-zati berriak eranstena zaizkio:

“5. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Hezkidetzako Aholkularitza Berariazkoa berreskuratu du Pedagogi Berrikuntzako Atalean eta irakasleentzako laguntza zentroetan.

6. Nafarroako Eskola Kontseiluak aldiro ematen du txosten bat aukera berdintasunaren garapenaz eskola sisteman. Era berean, genero eta hezkidetzaren ikuspegia txertatu du urteko txostenean.”

Bost. 6. artikuluari bi idatz-zatiak gehitzen zaizkio. Hona testua:

“5. Egoki iritziz gero, Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiak foru lege honetan hezkuntza arlorako ezarritako neurrien garapenari buruzko informazioa jaso ahal izanzen du Nafarroako hezkuntza sistemari buruzko urteko txostenean, edo bestela, informazio berariazkoa eman ahalko du.

6. Ikastetxeko barne araudian espresuki azalduko dira bizikidetasunari buruzko oinarritzko arauak –ondokoetan oinarrituta: pertsona guztien-ganako errespetua, giza harremanetatik indarkeria oro desagerraraztea eta, horrenbestez, sexu indarkeriazko jarrerekiko arbuio erabatekoa–, jarrera horiek zigortu edo zuzentzeko neurriak eta jarrera sexisten kritika esplizitua.”

Sei. 9 bis artikulua berri bat eranstean da:

“9 bis artikulua. Emakumeari laguntzeko zentroak.

1. Nafarroako Gobernuak bermatu egiten du egungo emakumeei laguntzeko zentroei eutsiko zaiela, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean laguntza orekatua emateko behar den zerbitzu espezializatuen egiturarekin.

2. Hogeita mila biztanle baino gehiago dituzten herriek emakumeari laguntzeko zentro bat edukiko dute gutxienez ere. Merindade buruetan ere zentroak egon behar dira. Emakumeari laguntzeko zentroaren jendearentzako ordutegiak goizetan eta arratsaldeetan joateko aukera eman behar du, eta bertan laguntza emanen dutenak diziplinarteko talde esperientziadun eta espezializatuak izan behar dira.

3. Emakumeari laguntzeko zentroak lankidetzan estuan arituko dira gizarte zerbitzuekin, osasun zerbitzuekin, eskola orientazioko zerbitzuekin eta larrialdietarako eta herritarren segurtasunerako zerbitzuekin, indarkeria-egoerak antzeman eta haiei aurrea hartzeko. Halaber, herritar guztiei zuzenduriko genero berdintasuneko programak egiten dira.”

Zazpi. 12 bis artikulua berri bat eranstean da:

“12 bis artikulua. Indarkeria sexista kontrolatzeko arazoak dauzkaten pertsonentzako laguntza psikologikoko zerbitzua.

Foru Komunitateko administrazioak abian jarriko du indarkeria sexista kontrolatzeko arazoak dauzkaten pertsonentzako doako laguntza psikologikoko zerbitzu bat, haiek berrezi eta gizartearen berregokitzeko.

Jarraitu beharreko tratamenduaren mota eta iraupena programaren profesional arduradunek erabakitzen dituztenak izan behar dira.”

Zortzi. 12 ter artikulua berri bat eranstean da:

“12 ter artikulua. Familia-bitartekotza.

1. Familiaren arloko departamentu eskudunak doako bitartekotza-programak eskainiko ditu ezkontideen arteko krisi egoeran edo bikotea

hausten denean gerta daitezkeen arazoei konponbidea emateko.

2. Familia-bitartekotza izan behar da, ondorio hauetarako, espezialistek arlo psiko-sozio-familiarrean egiten duten jarduketara, bikotearen bereiztearekin, dibortziaztearekin, ezkontzaren deuseztasunarekin edo bikotearen batasuna haustearekin loturiko alderdietan adostasun puntuak bilatzera bideratua, aldean arteko balizko arazo edo gora-beherak saihesteko.”

Bederatzi. 15 bis artikulua berri bat eranstean da:

“15 bis artikulua. Doako laguntza juridikorako eskubidea

1. Indarkeria sexistaren edo eraso sexualen biktima guztiei laguntza eta ordezkartza juridikorako, izaera horretako delituengatik prozedurarako akusazio ekintzarako eta faltengatik epailetan abokatu baten laguntza doakoa izateko eskubidea aitortzen zaie.

2. Halaber, eskubide horretan sartzen dira bikotea bereizteko, ezkontza deuseztatze edo dibortziazteko alde aurretiko behin-behineko neurrien eskaria, egitatezko bikoteetan zuzentasuneko neurrien eskaria eta babes neurrien eskaria.

3. Halaber, laguntza juridikoa doakoa izan behar da xede nagusia delitu ekintza baten ondorioz aitorturiko eskubideak administrazioari eskatzea xede duten prozeduretan.

4. Ahaleginak egiten diren biktimaren defentsa juridikoaz legegari bera arduratzeko indarkeria ekintzaren ondoriozko prozesu guztietan.

5. Doako laguntza juridikoa biktimaren baten heriotzaren ondorioz kalteturiko oinordekoei edo, biktima ezgaiturik badago, legezko ordezkariari aplikatuko zaie.

6. Zerbitzua abokatuen elkargo ofizialekin itunduz gero, horiek indarkeria sexistako kasuetarako ofiziozko txanda bat eduki behar dute. Txanda horretan sartzeko, prestakuntza edo trebakuntza ikastaro batzuk gaiturik behar dira, derrigorrez ezarriko direnak.”

Hamar. 16 ter artikulua berri bat eranstean da:

“16 ter artikulua. Herri ekintza.

“Foru Komunitateko administrazioa eta toki entitateak, berdintasunaren aldeko organismoen edo beren xedeen artean emakumearen eskubideen defentsa duten entitate eta elkarten bitartez, herri-ekintzaz baliatuko dira indarkeria sexistako kasu larrienetan, baldin eta biktimak hori

eskatzen badu edo delitu ekintzak biktimaren heriotza badakar.”

Hamaika. 18 bis artikulua berri bat eransten da:

“18 bis artikulua. Abegi etxeak edo larrialdietarako pisu edo zentroak.

1. Abegi etxeak edo presako larrialdietarako pisu edo zentroak familia etxea abandonatzea erabaki edo babesik gabe egon eta indarkeria sexistaren biktima diren emakumeentzako eta haien karguko adingabeentzako abegi baliabideak dira.

2. Baliabide horiek erabiltzeko, ez da beharrezkoa izan eraso-egilearen aurkako salaketarik jartzea.

3. Bi baliabide horietan, diziplinarteko taldeak arituko dira lanean. Talde horiek laguntza emozional eta psikologikoa eman, egin beharreko kudeaketek buruz aholkatu eta etengabeko lagun egitea eskainiko dute biktima bertan dagoen bitartean.

4. Abegi etxeak edo larrialdietarako pisu edo zentroak gutxienez Iruñean, merindade buruetan eta mendi eskualdeetan ezarriko dira.

5. Abegi etxeak edo larrialdietako pisu edo zentroek bermatu egin beharko dute bertan hartutako emakume eta adingabeei beharrezkoa duten konpainia egiteko eta esku hartzeko izan direla profesionalak hogeita lau orduz.”

Hamabi. 18 ter artikulua berri bat eransten da:

“18 ter artikulua. Tratu txarrak izan dituzten emakumeentzako laguntza, errehabilitazio eta bergizarteratze zentroak.

Tratu txarrak izan dituzten emakumeentzako laguntza, errehabilitazio eta bergizarteratze zentroak indarkeria sexistaren biktima izan diren emakumei laguntza integrala emateko sortuko dira, eta helburua izanen dute emakume horiei laguntza ematea bizitzari beregain aurre egin ahal izan diezaioten.

Baliabide hori abegi etxeetan egon ondoko laguntza gisa erabiliko da, eta laguntza diziplinarteko talde batek emanen du, bereziki arlo juridiko, psikologiko, prestakuntzako eta bergizarteratzeko

baliagarria den edozein arloko pertsonak osatutako talde batek hain zuzen.”

Hamahiru. 21 bis artikulua berri bat eransten da:

“21 bis artikulua. Etxebizitza eskuratzea.

1. Indarkeria sexistaren biktima izan eta egonaldia bukatutik abegi etxeetatik joaten diren emakumeek doako behin-behineko lojamendu bat edukitzeko laguntza ekonomikoetarako eskubidea izanen dute, haien gizarte- eta lan-egoerak hala eskatzen badu. Laguntza horien zenbatekoa eta haiek emateko prozedura erregelamendu bidez ezarriko dira.

2. Tratu txarren biktima izan diren emakumei lehentasunezko eskubidea babes publikoko etxebizitzak erosi eta alokatzeko, eta babes sistema berezi bat ere bai, erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan.”

Hamalau. Azken xedapen berri bi gehitzen dira –aldatu nahi den testuko lehenbizikoa eta bigarrena izanen lirateke–, eta horrenbestez, azken xedapena azken xedapenetan hirugarrena izatera pasako litzateke.

“Azen xedapena

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Foru lege hau argitaratu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak legea garatzeko erregelamendu bat emanen du.

Aldez aurretik, erregelamendu proiektua hila-betez jendaurrean jarriko da.

Azken xedapenetan bigarrena. Nafarroako Gobernuak urtebeteko epea izanen du gehienez ere, foru lege hau argitaratzen denetik aitzina, bertan jasotzen diren neurriak garatzeko. Horretarako, foru lege hau garatzeko beharrezkoak diren diru-aurreikuspenak eginen ditu urteko aurrekontu orokorretan Nafarroako Gobernuak.

Azken xedapenetan hirugarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.”

Azken xedapen bakarra. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko otsailaren 27an egindako Osoko Bilkuran, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2003ko martxoaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa

Espainiako Konstituzioak ezartzen duenez, botere publikoen betebeharra da gizarte laguntzako araubide bat mantentzea, beharrian egoeretan prestazio aski berrmatuko duena. Betebehar hori dela-eta, Espainiako eskualdeetan dauden gizarte desorekak konpentsatu behar dira, bizitzaren kostua batetik bestera aldatzen dela kontuan izanik. Horregatik eskualdeen arteko desoreka hori zuzendu beharra dago, eta metodo orokor eta uniforme bidez konpontzen ez diren desberdintasun-egoerei irtenbide bat eman behar zaie.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.17 artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak gizarte laguntzaren arloan eskumen osoa bereganatua du. Arau horretan oinarriturik, Nafarroako Parlamentuak Gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea onetsi zuen.

Foru lege horrek xedatzen du Nafarroako Gobernuaren eskumenekoak direla Nafarroako foru zuzenbidepeko herritarren gizarte-ongizatea neurririk handienez sustatzea xedatzen duten gizarte ekintza eta zerbitzuak, eta, halaber, adierazten du gizarte ongizatearen helbururantz joko dela gizarte ekintzako sistema orokor baten bitartez, zeina nortasunaren garapen duinerako beharrezkoak diren zerbitzu, bitarteko eta laguntzak pertsona, talde eta erkidegoen eskueran jartzera bideratua egon behar baita.

Gizarte-ekintza da gizarte-babesaren hirugarren graduko mota bat, ordezkia, Gizarte Segurantzak dituen kotizaziopeko eta kotizazio gabeko atalek ematen duten babes urritik at suertatzen diren babes-hutsuneak estaltzekoa; osagarria ere izan daiteke, hau da, Gizarte Segurantzatik heldutako prestazioak, batzuetan apalak, hobetzekoa.

Nafarroako Foru Komunitateko alargunen egoerari aurre egiteko ezar daitezkeen laguntza ekonomikoen muga dira Espainiako Konstituzioak Estatuari esleitzen dizkion eskumen eskusiboak, hala nola Gizarte Segurantzaren oinarritzko legegindua eta araubide ekonomikoa.

Beraz, foru lege honek arautzen duena da Gizarte Segurantzaren sisteman Estatuak arauturikoez bestelako laguntza ekonomikoak jasotzea; hain zuzen, jasotzen hasten dira Estatuaren babesa amaitzen den puntutik aurrera. Arauketa horrek ez ditu aldatzen alargun pentsioak jasotzeko eskaturiko baldintzak, ez eta pentsioen zenbatekoa ere; horrela, bada, oinarritzko legediaren gain Estatuari gordetzen zaion eskumen eskusiboa ez da zapaltzen, eta Gizarte Segurantzaren sistemako aurrekontu-batasunaren printzipioa ere ez da urratzen.

Ondorioz, foru lege honek proposatzen du Gizarte Segurantzako prestazio baten osagarria izan den laguntza bat ezar dadila, Gizarte Segurantzarenak ez diren funtsetatik ordaindua; beraz, bertako kutxa bakarra ez da hausten, eta bertako araubide ekonomikoak ere ez du esku-sartzerik pairatzen.

Horixe izan da Nafarroako Foru Komunitatearen jokabidea; hain zuzen, abenduaren 24ko 20/1991 Foru Legearen bitartez ez-ohiko kreditu bat gaitu zen, kontribuzio gabeko pentsioen hartzaileentzat osagarri bat ezartzeko. Ez foru lege hori, ez bera betearazteko emandako kasuan kasuko xedapenak, ez dira Konstituzio Auzitegian inpugnatu.

Asmoa ez da, hortaz, Gizarte Segurantzaren aplikazio-eremua hedatu edo osatzea, baizik eta pertsona-talde baten egoera aintzat hartzea. Talde horrek ezaugarri jakin batzuk ditu, zehatzak eta errepikaezinak.

Neurri horiek sistemaren babespetik kanpo gelditzen diren taldeek sentituko beharrian-egoera berezietarako babes-mekanismo gisa agertzen dira, Gizarte Segurantzarenak ez bezalako teknikak erabiltzen dituzte, kontribuzio-betebehar orotik at eusten zaie, edo hartzaile nahiz onuraduen aurretiazko lankidetzak ekonomikoa tartean dagoela, eta ez dira Gizarte Segurantzaren aplikazio-eremua hedatu edo osatzea xede duten neurriak, baizik eta neurri orokorrak dira, Nafarroako Foru Komunitateko bizitzaren, prezioen eta inflazioaren maila altuaren ondorioz ageriko beha-

rrizan-egoeran dagoen biztanle-sektore zehatz bati zuzenduak.

Gainera, Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeak aldarrikatzen du Nafarroako herritarrek oinarritzko errenta izan dezatela, dituzten eskubideez bere osotasunean baliatzeko aukera izan dezaten. Legearen artikuluetan, oinarritzko errenta horren zenbatekoa eta jasotzen dutenen betebeharrak ezartzen dira.

1. artikulua. Xedea.

1. Laguntza osagarri bat ezarriko da, urritasun ekonomiko egoerak arintzeko bideratua, lanbide arteko gutxieneko soldata (LAGS) baino alargun pentsio baxuagoak jasotzen dituzten pertsonen oinarritzko beharrezanean erantzuteko. Laguntza horren zenbatekoa izanen da honakoen artean dagoen aldea: LAGSaren ehuneko ehun, batetik, eta alargun pentsioagatik dagokien kopurua gehi Gizarte Segurantzaren kargura doan gutxieneko osagarria, bestetik.

2. Dirulaguntza horren helburua da alargun pentsioen titular diren pertsonen pairatzen duten behar adinako dirusarrerarik eza gainditzeko modua ematea, biziraupenerako gutxieneko bat bermatzeko eta gizartearen baitako nahiz eskualdeen arteko desorekak zelaitzeko; beraz, beharrezkoa izanen da Nafarroako forupekoaren izaera zibila izatea eta alde zuzenetik Foru Komunitatean gutxienez hiru urtez errotuta egotea.

2. artikulua. Zenbatekoa.

Alargun pentsioak jasotzen dituztenen baliabide ekonomikoak osatu eta lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko ehun egin dezaten behar den zenbatekoa izanen du prestazio osagarri honek.

Prestazio honen izaera subsidiario eta osagarria dela-eta, bakar-bakarrik aplikatzen ahalko zaie gizarte babes publikoaren sistemako gutxieneko osagarria jasotzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen dituztenei, sistema horretan urtero ezartzen diren kapital nahiz lan errenten mugekin. Pentsioaren zenbatekoa alargun pentsio gutxienekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren artekoa bada, bi zenbateko horien arteko aldea izanen da prestazio osagarria, kapital nahiz lan errenten bidez lortutako bestelako dirusararren mugak kontuan hartu eta gero. Urtero ezarriko da zenbat diru jasoko duten prestazio osagarri hori jaso behar duten pertsonen.

3. artikulua. Prestazio osagarria eskatu dutenen eta prestazio horren titularren erantzukizuna.

Interesdunek, betiere, eskabidean jartzen dituzten datuen erantzukizun pertsonala izanen dute. Nafarroako Gobernuak, emaniko informazioa benetakoa dela egiaztatzeko, datu guztiak egiaztatuko ditu, berak dituen fitxategiak erabilita.

4. artikulua. Prestazio osagarriaren amaiera.

Gutxieneko osagarria amaitzeko arrazoi berberengatik amaituko da alargun pentsioen prestazio osagarria, hark sorrarazten baitu honakoa, gehieneko mugari dagokiona salbu, unean-unean indarra duen lanbide arteko gutxieneko soldata izanen baita. Berrezarpena eskatu egin beharko da, eta eskaera egin ondoko hilaren lehen egunetik aurrera izanen ditu ondorioak.

5. artikulua. Aurrekontuan esleitutako diru kopurua.

Alargun pentsioaren prestazio osagarriari aurre egiteko, kasuan kasuko kontusailaren kargura esleituiko da aurreko artikuluetan ezarritako betebeharrak aurre egin ahal izateko beharrezkoa den diru kopurua.

6. artikulua. Ondorio ekonomikoak.

Ebazpenaren ondorio ekonomikoak hiru hilabeteko atzerako eragina izanen dute, eskabidea egiten den unetik.

Xedapen gehigarri bakarra. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari aurkeztuko dio, foru lege hau onesten denetik gehienez ere bi hilabeteko epean, kotizaziopeko pentsioak, kotizazio gabekoak eta asistentzialak jasotzen dituzten pertsonen buruzko txosten sektorial bat, laguntza ekonomiko osagarriak emateko xedez, dauden desoreka sozioekonomikoak eta foru legeak bilatzen ez dituen bidegabekeriak zuzentzeko.

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Gizarte Ongizate kontseilariari esku ematen zaio foru lege hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoaren aurka xedapen guztiak.

Azken xedapenetan hirugarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra eta 2003ko urtarrilaren 1etik aitzina sortuko ditu ondorio ekonomikoak.

Foru Lege proposamena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen lanbide karreraren sistema arautzen duena

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2003ko martxoaren 6an egindako Osoko Bilkuran, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen lanbide karreraren sistema arautzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Talde-

ak aurkeztu eta 2002ko abenduaren 26ko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen lanbide karreraren sistema arautzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2003ko martxoaren 6an egindako Osoko Bilkuran, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen lanbide karreraren sistema arautzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2002ko abenduaren 26ko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen lanbide karreraren sistema arautzen duen Foru Lege proposamena premiazko prozedurari jarraikiz tramitatzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Osasun Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **epe bat ireki-ko da, 2003ko martxoaren 14ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145.5 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2003ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko ikur eta sinboloei buruzko informazioa emateko eta haiek indartzeko, ezagutzera emateko eta erabiltzeko plan bat egin dezan

FORU ARAUBIDE BATZORDEAK ONETSIA

Foru Araubide Batzordeak, 2003ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko ikur eta sinboloei buruzko informazioa emateko eta haiek indartzeko, ezagutzera emateko eta erabiltzeko plan bat egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko ikur eta sinboloei buruzko informazioa emateko eta haiek indartzeko, ezagutzera emateko eta erabiltzeko plan bat egin dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, sei hilabeteko epean, Foru Komunitateko ikur eta sinboloei buruzko informazioa emateko eta haiek indartzeko, ezagutzera emateko eta erabiltzeko plan bat egin dezan, eza-gunak izan daitezen haren historia, sinbologia eta ezaugarri behinenak.

Plan hori Nafarroako hezkuntza eremura zuzenduko zaio bereziki, eta hartara, Foru Komunitateko ikastetxe guztiek izan beharko dute behar adina informazio Nafarroako identitate zeinuak sustatzeko.

HARPIDETZAREN PREZIOA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA
ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	NAFARROAKO PARLAMENTUA
Urte bat 40,27 euro	«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 1,02 »	Navas de Tolosa, 1
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,20 »	31002 IRUÑA